

ERREBALE JAUREGIKO ATERPETXEA ESLEITZEKO PROZEDURA-PROPOSAMENA

Udal Gobernu taldekoek Larrabetzuko herriaren aurrean erromesentzako aterpearen egoerari buruzko hausnarketa plazaratu nahi dugu, eta etorkizunari begira, aterpearen funtzionamendurako proposamen berri bat ezagutarazi.

Gaur egungo egoera:

1. Aterpea 2016 urtean jarri zen martxan, oraingo Udal Gobernuaren ekimenez, Larrabetzuko Udala eta Done Jakue Borondatezko Zaintzaile Elkartearen artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Elkarte hau izan zen Udalean proiektua aurkeztu zuen erakunde bakarra eta aterpea Eskoletan jartzea erabaki zen.
2. Ekimenaren emaitza ona ikusita, 2017 urtean aldaketa batzuk planteatu ziren: aterpea Eskolatik atera eta Errebale Jauregira eramatea, Borondatezko Zaintzaile Elkartearekin hitzarmena berriztea eta aterpe bezala funtzionatzeko lokalaren irekiera epea luzatzea.

2017 urte horretan 2.758 pertsonak igaro zuten gaua aterpean, horrek Larrabetzura ekarri zuen onura ekonomikoaz.

3. 2018 urte hasieran aterpearen gestioaren esleitzeko sistema aldatzeko aukera planteatu zuen EAJ-PNVek. Denbora arazoengatik, Udal Gobernu taldeak hitzarmena 2018ko urriaren 30era arte elkarte berdinarekin berriztea erabaki zuen eta urte bukaeran eztabaidatzea hurrengo urtera begirako lokalaren kudeaketa aukera desberdinak aztertzeko.

Proposamen berria:

Aterpea gestionatzeko egon daitezkeen aukera posible guztiei zabalik dago egingo den proposamena.

Hauxe da Errebale Jauregiko lokalaren gestioa esleitzeko prozedura-proposamena:

- Errebale Jauregiko bigarren solairuan dagoen lokala aterpe modura gestionatzeko eskaintza, proiektua... jasotzeko epea azaroaren 1etik 30era izango da. Norbanakoek, edozein talde zein elkartek edo enpresek izango du proposamena udaletxean aurkezteko aukera.
- Udalak jende aurrean iragarriko du zein betebeharreri erantzun nahi zaion, zein epetan eta zeintzuk izango diren aurkeztutako proiektuek betebeharreko baldintzak.
- Aurkeztutako proposamenak abenduko Ogasun Batzordean aztertuko dira. Proposamenak baloratu ondoren, ezarritako epean erabakiko da gestio sistema, eta urtarileko Udal Batzean onartua izango da.

I. ERANSKINA

ERREBALE JAUREGIKO BIGARREN SOLAIRUKO LOKALA ATERPETXE MODUAN ERABILTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Aterpe bezala erabiliko den lokala Errebale Jauregiko 2. solairuan dagoena da.

Lokalaren kudeaketa izango duen norbanako/enpresa/erakundeak betebeharreko baldintzak hauek izango dira:

- Aterpe modura lokala erabili nahi duten norbanako edo pertsona-taldeei ostatu eta egonaldi zerbitzua eskaintzea.
- Zerbitzu aldia aldagarria izan daiteke, baina bereziki baloratuko da zerbitzua urte osoan ematea.
- Eraikuntza zein bere barruan dauden instalazio, altzari eta tresneriaren zaintzaz, kontserbazioaz eta mantentzeaz arduratzea.
- Kontratua bukatzean eraikuntza eta bere instalazioak jaso ziren baldintza berdinetan bueltatzea, erabiltzeari dagokion narriadura alde batera utzita.
- Egonaldiek irauten duten bitartean pertsona arduradun baten presentzia iraunkorra (24 ordu) ziurtatzea.
- Zerbitzu-ematearen jarraipena egiteko udal arduradunekin aldian-aldian bilerak izatea.
- Egokia deritzon edozein aldaketa proposatzea, betiere lokalaren ustiapenaren onerako denean.
- Ondorengo gastuen kargu egitea:
 - Instalazioen garbiketa
 - Material suntsikorra
 - Zerbitzua emateko beharrezko materiala: ohatzeak, izarak, garbiketarako materiala...
- Udal ekintzetarako urtean 5 egunetan lokala utzi, zeinetan esleipena duen enpresak instalazioen zabaltze, ixte, zaintza eta garbiketaren ardura izango duen.

Zerbitzuaren kostea Udalarekin hitzartuko da, norbanako, enpresa edo erakundearen eskaintza aztertu ondoren.

Halaber, aterpetxea erabiltzeagatik kobratuko diren prezioak Udalarekin adostutakoak izango dira eta sinatuko den hitzarmenean agertuko dira.

II. ERANSKINA

ATERPETXEAREN GESTIO-ESKAINZA AKREDITATZEKO UDALARI AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintzak honako dokumentazio hau edukiko du:

1. Bere proposamena aurkezten duen norbanako, enpresa, talde edo elkarteari buruzko deskripzio-txostena.
2. Lokala erabiliko duten pertsoneri eskainiko zaizkien zerbitzu guztien deskripzio-txostena.
3. Proposamen ekonomikoa, lokalaren gestiorako zein izango den zehaztuz. Proposamen ekonomikoa aurkeztu ezean, justifikatu egin beharko da.

PROPUESTA DE PROCEDIMIENTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL ALBERGUE DE ERREBALE JAUREGIA

Desde el Equipo de Gobierno del Ayuntamiento queremos trasladar a la opinión pública de Larrabetzu una reflexión sobre la actual situación del albergue para peregrinas y peregrinos de nuestro municipio, y dar a conocer una nueva propuesta de funcionamiento de éste de cara al futuro.

Situación actual:

- El albergue comenzó a funcionar en el año 2016 a iniciativa del actual Equipo de Gobierno, tras firmar un convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larrabetzu y la Agrupación de Hospitaleros Voluntarios para el Camino de Santiago. Esta asociación fue la única entidad que hizo llegar su propuesta al Ayuntamiento.
- Visto el buen resultado de esta iniciativa, en 2017 se plantean varios cambios: trasladar la ubicación física del albergue de la Escuela de Larrabetzu a Errebale Jauregia, volver a firmar el convenio con la Asociación de Hospitaleros y ampliar el periodo de apertura del local como albergue.

Durante 2017, 2.758 personas pernoctaron en el albergue, con lo que eso supuso de impacto económico para Larrabetzu.

- A principios de 2018, EAJ-PNV planteó la posibilidad de cambiar el sistema de adjudicación de la gestión del albergue. Por problemas de tiempo, el Equipo de Gobierno decidió volver a firmar el convenio con la misma asociación hasta el 30 de octubre de 2018 y aplazar el debate a final de este año.

Nueva propuesta:

La gestión del albergue estará abierta a todas las alternativas posibles. Se plantea recibir propuestas de gestión con proyectos concretos.

Procedimiento a seguir para la adjudicación de la gestión del local de Errebale Jauregia como albergue:

- El Ayuntamiento abrirá del 1 al 30 de noviembre el periodo para la recepción de proyectos, ofertas,... de gestión del local ubicado en de la segunda planta de Errebale Jauregia como albergue. Se aceptará cualquier propuesta presentada a modo individual o por parte de grupos, asociaciones, empresas...
- El Ayuntamiento realizará una campaña pública para dar a conocer a empresas, asociaciones, grupos locales o particulares cuales son las necesidades que se desean cubrir durante el periodo a adjudicar y las condiciones que debe cumplir el proyecto presentado.
- Las propuestas presentadas se estudiarán en la Comisión de Hacienda de diciembre. Tras valorarlas, se establecerá el sistema de gestión del local para el periodo señalado, y será aprobado en el pleno municipal de enero.

ANEXO I.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL USO DEL LOCAL DE ERREBALE JAUREGIA COMO ALBERGUE

El local que será utilizado para este fin es el situado en la planta 2ª de Errebale Jauregia.

Condiciones a cumplir por la persona, empresa, organización o asociación que gestione el local:

- Ofertar servicio de alojamiento y estancia a grupos de personas o a personas individuales que deseen utilizar este servicio de albergue.
- El periodo del servicio podrá ser variable, pero se valorará positivamente que sea para todo el año.
- Encargarse del mantenimiento, conservación y vigilancia del edificio, instalaciones, enseres y muebles.
- Cuando finalice el contrato, entregar el edificio y sus instalaciones en las condiciones en las que las recibió, salvaguardando el menoscabo natural por el mero uso.
- Asegurar la presencia constante (24 horas) de una persona responsable en época de estancias.
- Mantener reuniones periódicas con las personas responsables del Ayuntamiento para analizar el curso de los servicios.
- Proponer al Ayuntamiento cualquier modificación que considere oportuna y redunde en beneficio de la explotación del local.
- Hacerse cargo de los siguientes gastos:
 - Limpieza de las instalaciones
 - Material fungible
 - Material necesario para prestar el servicio: literas, sábanas, material de limpieza...
- Ceder 5 días al año el local para actividades municipales, durante los cuales la empresa adjudicataria se hará cargo de la apertura, cierre, custodia y limpieza de las instalaciones.

El coste del servicio se pactará con el Ayuntamiento tras estudiar la oferta de la persona, empresa o agrupación.

Los precios que se cobrarán a quienes utilicen el albergue, serán, así mismo, acordados con el Ayuntamiento dentro del convenio a firmar.

ANEXO II

DOCUMENTACIÓN A APORTAR AL AYUNTAMIENTO PARA ACREDITAR LA OFERTA DE GESTIÓN DEL ALBERGUE

La oferta contendrá la siguiente documentación:

1. Memoria descriptiva de la persona, empresa, agrupación o asociación... que presenta su propuesta.
2. Memoria descriptiva de todos los servicios que se prestarán a las personas usuarias del local.
3. Propuesta económica, especificando cual va a ser ésta para la gestión del local. En caso de que no haya una propuesta económica, deberá justificarse.